

Trafiko, zirkulazio eta segurtasun ordenantza

OIARTZUNGO HERRIAN HIRI IZAERAKO BIDE PUBLIKOETAN ERABILERAK, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ATARIKO TITULUA HELBURUAK ETA APLIKAZIO-EREMUAK

1. art. Eskumena: Eskuarteko Ordenantza hau, Tokiko Erregimenaren Oinarrien Lege Erregulatzailerak eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legeak pertsonen eta ibilgailuen trafikoa hiri-bideetan ordenatzeko gaietan Udalerriari emandako eskumenen jardunean ematen da.

2. art. Helburua. Eskuarteko Ordenantza honen helburua da hiri-bideetako eta zeharbideetako erabilerak arautzea, beste Administrazioekin lankidetzako edo ordezkartzako formulen arabera jardunez, erabiltzaile guztien artean aparkalekuen banaketa zuzena, ibilgailuen trafikoa eskatzen duen arintasunarekin eta oinezkoentzako kaleen erabilerarekin egoki uztartuz, eta guztia ere, ezintasunen baten ondorioz euren mugikortasuna murriztua eta ibilgailuren bat erabiltzen duten pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz, eta hauen gizarteratzea errazteko asmoz.

3. art. Aplikazio-eremua. Ordenantza honen aplikazio-eremuak honakoei behartuko die: zirkulaziorako gai diren bide eta lurzoru publikoen eta hiriartekoen titular eta erabiltzaileei – hauen eskumena Udalari utzia izan denean–, bide eta lurzoruaren titular edo erabiltzaileei – halako ahalmenik gabe ororen erabilerakoak direnean–, eta beste araurik ezean, zehaztu gabeko erabiltzaile multzo batek erabiltzen dituen bide eta lurzoru pribatuen titularrei.

Bideko erabiltzailetzat hartuko da oinezko, ibilgailu-gidari, txirrindulari eta izaera anitzeko jarduerak bidean burutzen dituen edota horiek garatzeko bidea bera erabiltzen duen pertsona oro, bere jarduera burutzeko udal baimena beharko dutelarik.

LEHENENGO TITULUA HERRI BARRUKO ZIRKULAZIOA

I. ATALBURUA: ARAU OROKORRAK

4. art. 1.- Bideen erabiltzaileak beharturik daude zirkulazioa bidegabeki ez oztopatzeko eta ez arriskurik, kalterik, eta beharrezko ez den eragozpenik pertsonari edo ondasunari ez eragiteko moduan jokatzera.

Oinezkoak espaloietatik ibiliko dira, beste oinezkoen zirkulazioa ez oztopatu edo eragozteko moduan. Galtzadak gurutzatzeko seinaleztaturiko pasabideak erabiliko dituzte, eta hauek ez dauden lekuetan, etxadien ertzetan egingo dute, galtzadaren perpendikularrean, ibilgailuren bat gerturatzeko ari den edo ez ziurtatu ondoren.

2.- Debekatu egiten da ibilgailuaren ateak irekita eramatea, ibilgailua erabat gelditu baino lehen ateak irekitzea, eta beste erabiltzaileentzat, eta txirrindularientzat bereziki, inolako arriskurik edo eragozpenik ez duela eragiten aurrez ziurtatu gabe ibilgailuaren ateak irekitzea edo bertatik jaistea.

3.- Bizikletak behar bezala homologaturiko eta arauz zehazten diren baliabide islatzailez hornituak egongo dira, eta ibilgailu hauek aipaturiko arauaren arabera izan beharko dituzte. Argien erabilera derrigorrezkoa denean, txirrindulariek nolabaiteko jantzi islatzaile bat eraman beharko dute soinean herriarteko bideetan zirkulatzen dutenean.

Espresuki debekatzen zaie txirringa, motor-bizikleta edo bizikleta-motordun gidariei galtzadan gurgil bakar bat dela ibilgailua arrankatzea edo zirkulatzea. Berebat, debekatu egiten zaie bizikleta-motordun, txirringa, patin, monopatin edo antzeko gailuen erabiltzaileei martxan diren ibilgailuei eustea.

4.- Bizikletek eurentzat bereziki gordetako erreietatik zirkulatuko dute, zeharkatzen dituzten oinezkoen lehentasunezko pasabideak errespetatuz. Gordetako erreirik ez egoteagatik galtzadatik zirkulatuz gero, eskuineko erreitik zirkulatuko dute, berehalako batean ezkerrean biratu behar duten kasuetan izan ezik.

5.- Txirrindulariek herri barruko bideetatik barna taldean zirkulatzen dutenean egokitzen zaizkien semaforoen seinaleztapena bat-banaka errespetatu beharko dute.

6.- Bizikletek ezingo dute zirkulatu bazterbiderik ez duten herri barruko bideetan, hauetan orduko 50 km baino gehiagoko abiadura baimenduta dagoenean.

5. art. 1.- Ordenantza hauen helburu diren bideetan obrak nahiz instalazioak egiteko, edukiontzia, hiri-altzari edo beste edozein gailu edo gauzaki modu iraunkor edo behin-behinekoz ipini ahal izateko udal baimena beharko da aurrez, eta arau honetan eta aplikazio orokorreko legeetan ezarritakoaz eraenduko dira. Arau berberak aplikatuko dira obrak eteteko, zeina trafikoaren inguruabar edo ezaugarri bereziak medio, udal agintarien eskariz gauzatu ahal izango den.

2.- Ezingo dute zirkulatu Ordenantza hauen helburu diren bideetatik araubidez ezarritako zarata-mugak gainditzen dituzten ibilgailuek; ezta ezarritako mugetatik kanpo gasak edo keak jaurtitzen dituztenek ere, ezta baimendu gabeko aldaketa biziki garrantzitsuren bat jasan duten ibilgailuek ere. Ibilgailuen gidari guztiak beharturik daude adierazitako balizko akatsak egiaztatzeko aukera ematen duten arauzko atzemate-probetan laguntzera.

6. art. Debekatua dago bidean zirkulazio askea, gelditzea edo aparkatzea oztopatu lezaketean, arriskutsu egin edo bidea nahiz bertako instalazioak hondatu, edota zirkulatzeko, gelditzeko edo aparkatzeko baldintza egokiak bertan edo inguruan aldatzea eragin dezaketean gauzakiak jaurtitzea, uztea edota bertan abandonatzea.

7. art. 1.- Orduko 50 km-takoa da Ordenantza honek arauturiko hiri barruko bideetan baimendutako abiaduraren gehieneko muga, udal-aginpideak, ezaugarri bereziak kontuan hartuta, zenbait bideetan ezarri ditzakeen muga handiagoen edo txikiagoen kalterik gabe.

Gidari oro beharturik dago ezarritako abiadura mugak errespetatzera eta, bere baldintza fisiko eta psikikoaz gain, bidearen egoera eta ezaugarriak kontuan hartzea, baita ibilgailuarenak eta honen kargarenak ere, meteorologi, ingurumen eta zirkulazio baldintzak, eta, oro har, une bakoitzean gerta daitezkeen inguruabar guztiak ere, ibilgailuaren abiadura egokitu eta bere ikusmen-eremuaren mugen barruan eta edozein oztoporen aurrean ibilgailua gelditu ahal izatearren.

2.- Abiadura minimoko muga azpitik zirkulatu ahal izango da garraio eta ibilgailu berezien kasuetan, edota zirkulazioarentzat arriskurik gabe, trafikoko inguruabarrek gutxieneko abiaduraren gainetik mantentzea eragozten dutenean, baita beste ibilgailuak babesteko edo laguntzeko kasuetan ere, araubidez ezartzen diren baldintzetan betiere.

Oinezkoen gunetan, errei bakarreko kaleetan edo jendetza handia dagoen haietan ibilgailuek ezingo dute orduko 10 kilometroko abiadura gainditu.

8. art. 1.- Ibilgailuen gidariak gidatzeko garaian Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legean eta beronen Garapen araudietan ezarritakora lotuko dira.

2.- Debekatua geratzen da kasko edo aparatu soinu hartzaile edo erreproduzitzaileei konektatuta edozein motatako ibilgailuak gidatzea, gida-baimena lortzeko zirkuitu irekian gaitasun probak araubidez zehazten diren baldintzetan burutzerakoan izan ezik.

Debekaturik dago gidatzen den garaian telefono mugikor edo beste edozein komunikazio bide edo sistema erabiltzea, komunikazioa eskuak erabili gabe, kaskoak, aurikularrak edo antzeko tresnarik erabili gabe egiten denean izan ezik.

Aipaturiko debekutik salbu geratzen dira agintarien agenteak eman zaizkien ardurak betetzen ari direnean.

3.- Debekaturik dago hamabi urtez behetikoekin ibilgailuaren aurrean kokaturiko aukietan zirkulatzea, horretarako homologaturiko gailuak erabiltzen dituztenean izan ezik. Berebat, debekatua gelditzen da hamabi urtez behetikoak motor-bizikleta edo bizikleta-motordunetan, sidekar edo sidekar gabe, bidaiari gisa edozein motatako bideetatik eramatea. Salbuespen gisa zazpi urtetik aurrerakoekin zirkulatzea baimentzen da, baina betiere gidaria gurasoa, tutorea edo hauek baimendutako adinez nagusia den norbait denean, homologaturiko kaskoa erabili eta araubidez ezarritako berariazko segurtasun-baldintzak betetzen dituztenean.

4.- Debekatua dago trafikoko agenteen zaintza saihestera bideraturiko mekanismo edo sistemak instalatzea edo baliabideak eramatea, baita helburu berberarekin seinaleak igorri edo egitea ere.

II. ATALBURUA: SEINALEZTAPENA

9. art. 1.- Udal agintariei dagokie hiri barruko bideen seinaleztapena. Alkatetzak eta/edo Zinegotzi Ordezkariek emango du kasu bakoitzean seinaleak ipintzeko, kentzeko edo ordezkatzeko agindua.

2.- Ordenantza hauen helburu diren bideetako erabiltzaile guztiak beharturik daude obligazioa edo debekua ezartzen duten zirkulazio seinaleak betetzera, eta zirkulatzeko bideetan aurkitzen dituzten araubidezko gainerako seinaleen mezuetara euren jokabidea egokitzera.

Honenbestez, seinale batek gelditzeko agindua ezartzen duenean, era honetan gelditutako ibilgailuaren gidariak ezingo du abiatu seinaleak ezartzen duen helburua bete arte.

10. art. Seinaleak instalatzeko, erretiratzeko, lekualdatzeko edo aldatzeko udal baimena eskuratu behar da aurrez. Baimenak zehaztuko du ezarri beharreko seinaleen lekua, eredia eta neurriak.

Udalak berehala erretiratuko du behar bezala baimenduta ez dagoen seinaleztapena edo indarrean dagoen araudia betetzen ez duena, eta esandakoa egingo da arauzkoak ez diren seinaleekin nahiz seinalearen forma, kokapen edo diseinu okerra dutenekin ere.

Halaber, debekatu egiten da seinaleen edukia aldatzea, edo hauen gainean edo aldamenean nahasmena eragin, hauen ikusmena edo eragina murriztu, bideko erabiltzaileak itsutu edo hauen arreata desbideratu dezaketen plakak, txartelak, markesinak, iragarkiak edota bestelako gauzakiak ipintzea.

11. art. 1.- Hiriguneetako sarreretan ipinitako derrigorrezko trafiko seinaleak gune osoan betetzekoak dira, kale zatiren baterako berariaz jarritako seinaleztapena salbu.

2.- Oinezkoen guneetako sarreretan eta zirkulazio murriztu edo geldialdi mugatuko gainerako guneetan ipinitako seinaleek eraentzen dute oro har perimetroaren barneko bide-sare guztia.

12. art. Honakoa da seinale mota desberdinen arteko lehentasun ordena:

1. Trafikoa zainteaz arduraturiko Bidezainen seinaleak eta aginduak.
2. Bide publikoko erabilera normalaren erregimena aldatzen duen seinaleztapen zirkunstantziala.
3. Semaforoak.
4. Zirkulazioko seinale bertikalak.
5. Bide-marrak.

Seinale ezberdinek adierazitako aginduak beren artean kontraesanean daudela dirudien kasuetan, lehentasuna duena nagusituko da, aurreko atalean azaldutako ordenaren arabera, edota murriztaileena mota bereko seinaleak baldin badira.

13. art. Udal Aginpideak, larrialdi kasuetan edota jendetza handiak edo ibilgailu pilaketa gerta daitekeen kirol, kultur edo beste izaera bateko ekintzak ospatzen direla-eta, lehendik dagoen trafikoko ordenazioa aldatu ahal izango du aldi baterako, baita, hala balegokio, behar diren neurri prebentibo guztiak hartu ere pertsonen eta ibilgailuen segurtasuna eta zirkulazioan arintasun handiagoa bermatzeko.

III. ATALBURUA: GELDIALDIA ETA APARKALDIA

1. Atala. Geldialdiaz

14. art. Geldialdiaz hartzen da ibilgailu bat bi minutuz azpiko denboraz mugitu gabe uztea, gidariak bertatik alde egin gabe. Ez da geldialditzat hartuko zirkulazioaren beharregatik egiten den ustekabeko edo une bateko geldialdia.

15. art. Geldialdia egiterakoan ibilgailuak zirkulazioa oztopatuko ez duen moduan, eta bideko gainerako erabiltzaileentzat arriskurik eragin gabe egin behar da, non gelditzen den kontua atereaz bereziki. Edonola ere, geldialdia eskuineko espaloiara gerturatuz egin behar da ibilgailua martxan zihoaneko norantzan, nahiz eta noranzko bateko zirkulazioa dagoen bideetan ezkerreko aldean ere gelditu ahal izango den. Bidaiariak espaloiaren aldetik jaitsi beharko dira. Ibilgailuaren gidariak, jaitsi behar baldin badu, beste aldetik egin ahal izango du, betiere inolako arriskurik gabe egin dezakeela segurtatu ondoren.

16. art. Gune eta bide publiko guztietan, geldialdia egiterakoan zirkulazioan eragozpen gutxiena sortarazten duen puntuetan egingo da. Salbuetsirik daude bidaiariak pertsona gaixoak edo ezinduak diren kasuak, edo larrialdiko zerbitzu publikoak edo garbitasuneko nahiz zabor bilketako kamioiak direnean.

Espaloirik gabeko kale hiritartuetan, metro bateko tartea utziko da gutxienez gertueneko fatxadatik neurtuta.

17. art. Auto-taxiak eta turismo handiko ibilgailuak Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzailerak zehazten duen eran eta lekuan geldituko dira, eta hori ezean, eskuarteko Ordenantzan geldialdietarako oro har ezartzen diren arauetara makurtuko dira zorrozki.

18. art. Autobusak, hiri barruko nahiz hiriarteko lineetakoak Udal Aginpideak espresuki zehazturiko edo seinalezaturiko geltokietan soilik hartu eta utzi ahal izango dituzte bidaiariak.

19. art. Udal Aginpideak eskolako garraio-zerbitzua duten ikastetxeetako titularrei ikasleak jasotzeko ibilbideak proposatzeko eska diezaiekete. Hauek behin onartutakoan, aipaturiko Aginpideak geldialdiak finkatu ahal izango ditu ibilbide bakoitzean, eta aipatu geldialdietatik kanpo ikasleak jasotzea debekatu.

20. art. Debekatu egiten da honako kasu eta lekuetan gelditzea:

- a) Araubidez edo disko edo pintura bidez debekaturiko lekuetan.
- b) Oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioan oztopo edo gorabehera larria eragiten dutenean.
- c) Bigarren ilaran, noranzko bakarreko zirkulazioa duten kaleetan errei bat libre, eta bi noranzko kaleetan bi libre geratzen direnean izan ezik, eta betiere trafikoa oso trinkoa ez denean, eta berrogei metroko distantzian espazio librerik ez dagoenean.
- d) Aterpe, irlatxo, erdibitzaile, babesgune eta trafikoa bideratzeko beste gainerako bitartekoetan.
- e) Ibilgailuen eta pertsonen sarrera edo irteera normalaren erabilera oztopatzen denean. Baita dagokion ibiarekin ibilgailuen sarrera-irteera seinaleztatua dagoenean ere.
- f) Ezindu fisikoentzat soilik seinalezaturiko guneetan, espaloi, pasealeku eta oinezkoentzat xedaturiko gainerako guneetan.
- g) Ertz, bidegurutze edo bidebanatze batetik 5 metro baino gutxiagora, zirkulazioarentzat inolako oztopo edo arriskurik eragin gabe geldialdia alakan edo hauetatik kanpo egin daitekeen kasuetan izan ezik.
- h) Zubietan, trenbide-pasagunetan, tuneletan edo jasotako pasaguneen azpian, bestelako seinaleztapena dagoenean izan ezik.

- i) Gelditzeak gidariei zuzendutako trafiko seinaleak ikustea eragozten duen lekutan.
- j) Bihurgune edo maldaren gainaren inguruan, geldituta dagoen ibilgailua gainerako ibilgailuek inolako arriskurik gabe gainditzeko ikusmen aski ez dagoenean.
- k) Zerbitzu publikoko nahiz erakunde ofizialeko ibilgailuentzat eta larrialdiko zerbitzuentzat behar bezala seinaleztaturik dauden geltokietan.
- l) Zirkulazioari edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzuari gordetako erreietan, hala nola, bidaiarien garraio publikoko autobusentzat edo taxientzat.
- m) Mugikortasun urriko pertsonen pasabiderako espaloietan dauden behegunetan.
- n) Txirrindularien erabilerarako soilik gordetako pasabide edo erreietan.
- o) Udal Erabakiz ardura nagusiko aldarrikaturiko bide publikoetan, geldialdia alaketan egin daitekeenean kasuetan izan ezik.
- p) Behar bezala seinaleztaturik egonik, eta ikastetxe, eraikin, lokal edo ikuskizunetara edo ekintza publikoetara xedaturiko esparruetakoak izanik, hauek ospatzen diren orduetan larrialdiko sarrera-irteerak oztopatzen direnean.
- q) Galtzadaren erdian, baita honen zabalera horretarako aukera ematen duela dirudienean ere, horretarako espresuki baimendua dagoenean izan ezik.
- r) Gainerako ibilgailuei baimendutako bira bat ematea eragozten denean.

2. Atala: Aparkaldiaz

21. art. Aparkaldiaz hartzen da ibilgailu batek bi minututik gora geldituta ematen dituztenean, betiere zirkulazioaren aginduz edo arauzko beste edozein betebeharrengatik eragindakoa ez denean.

22. art. Aparkaldia egiterakoan ibilgailuak ez du zirkulazioa oztopatu beharko ezta bideko gainerako erabiltzaileei inolako arriskurik sortaraziko ere, horretarako ibilgailua martxan zihuan noranzko galtzadaren ertzetik ahalik eta gertuen kokatuko du, eta gidaria ez dagoenean mugimenduan ez jartzeko moduan. Horretarako ibilgailuen gidariak behar diren neurri egoki guztiak hartu beharko dituzte, eta ibilgailua bat-batean abian jartzeagatik edo hirugarrenen ekintzarenagatik sor daitezkeen egoera aldaketaren ondorioz gerta daitezkeen arau-hausteen erantzule izango dira, azken honetan bortxa nabarmena izandako kasuan ezin ezik.

Aparkaldia egiterakoan gelditzen den espazio librea gainerako erabiltzaileei ahalik eta hobekien erabiltzeko aukera emango dien moduan egingo da.

23. art. Ibilgailuak ilaran, zeharka edo erdi-zeharka aparkatu ahal izango dira. Ilaran edo soka aparkatzea deitzen zaio ibilgailuak bata bestearen atzean eta espaloi ertzaren parez pare kokatzeari.

Baterian aparkatzea deitzen zaio ibilgailuak bata bestearen saihetsean eta espaloi ertzari perpendikularki kokatzeari.

Erdibaterian aparkatzea deitzen zaio ibilgailuak bata bestearen saihetsean eta espaloi ertzari zeharka aparkatzeari.

Arau orokor gisa, ilaran aparkatuko da beti. Arau honen salbuespena espresuki seinaleztatu beharko da.

Seinaleztapena zoruan dagoen aparkalekuetan, ibilgailuak marrazturiko perimetroaren barruan kokatuko dira.

24. art. Zirkulazioa bi noranzkoa den bideetan, eta aparkatzea debekatua ez dagoenean, martxako noranzkoaren eskuin aldean egingo da.

Noranzko bakarreko zirkulazioa den bideetan eta, betiere, bestelako seinalerik ez dagoen bitartean, galtzadaren bi aldeetan aparkatu ahal izango da, zirkulaziorako hiru metro baino gutxiagokoa ez den zabalera uzten den bitartean, betiere.

25. art. Gidariek euren ibilgailuak espaloi ertzetik ahalik eta gertuen aparkatu behar dituzte, espaloi ertzaren eta ibilgailuaren gorpilen kanpoko aldearen artean 20 zentimetro baino gutxiago utziz, galtzadaren alde honen garbitasuna egin ahal izateko.

26. art. Udal Aginpideak bide publikoan aparkatzeko edo hiribarruko nahiz hiriarteko autobus lineen amaiera puntu gisa hainbat gune finkatu ahal izango ditu.

Bidaiarien garraiora edo edozein motatako merkantzien garraiora xedaturiko ibilgailuek ezingo dute bide publikoetan aparkatu Udal Aginpideak dagokion Udal Ebazpenaren bitartez zehazturiko ordutik aurrera.

Bidaiarien garraiora edo Baimendutako Gehieneko Masa (BGM) 3.500 kilotik gora duten merkantzien garraiora xedaturiko ibilgailuek ezingo dute hiriko bide publikoetan aparkatu, Udal Administrazioak espresuki baimendutako lekuetan izan ezik.

27. art. Udalak mugaturiko aparkaldi neurriak ezarri ahal izango ditu, aparkalekuen txandaketa bermatzearen.

28. art. Udal Aginpideak guneak ezarri eta seinaleztatu ahal izango ditu zamalanak egiteko. Kasu horretan, debekaturik geratzen da aipaturiko zamalanak horretarako gordetako gunetik 50 metroko erradio batean egitea.

1) Zamaketarako gordetako aparkalekuak edozein ibilgailuk erabili ahal izango ditu, merkantzien garraiora xedatua dagoenean betiere, edota hala egon gabe gidariak bere barruan irauten badu, zamalanak egiten ari baldin bada, eta zamalanak irauten duten bitartean eta 15 minutu gehienez gaudituz gabe, justifikatutako kasuetan izan ezik, horietan behar den denborara zorrotz egokituko delarik.

2) Udalak egoeraren inguruabarrak, araututako eta denbora mugatuko aparkalekuen hurbiltasuna, edo erabileraren maiztasuna kontuan hartuz, zamalanak egiteko berariazko arauak ezarri ahal izango ditu.

3) Eraikin berriak egiten diren bitartean obretako baimen eskatzaileek obren barruan zamalanak burutzeko aparkalekua badutela frogatu beharko dute.

Hori posible denean, obragatik aparkatzeko gordetako guneak eskatzaileak egindako instantziaz emango dira, honek, dagokion txosten teknikoaren bitartez, aurreko atalean aipaturiko gunea gordetzerik ez duela frogatu beharko duelarik. Udal Aginpideak, onarturiko dokumentazioa ikusita erabakiko du ematearen jatorriaren inguruan edo baimentzen deneko baldintzen inguruan.

Udal baimena beharko da egoera edo zerbitzu berezietarako zamalanak egiteko (erregai, etxe-aldaketak edo bestelako aldaketak, aldi behingo eta salbuespenezko eragiketak). Ematen diren baimenetan helburua, egoera, iraupena, datak eta ordutegiak azaldu beharko dira, baita ibilgailuen Baimendutako Gehieneko Masa (BGM) ere.

29. art. Debekatua dago ondoko kasu eta lekuetan aparkatzea:

a) Bertako seinaleek debekatzen duten lekuetan.

b) Gelditzea debekatua dagoen lekuan.

c) Bide publikoko leku berean hamar egun natural baino gehiago elkarren segidan. Adierazitako ondorioetarako lanegunak bakarrik kontatuko dira.

d) Ilara bikoitzean edozein kasutan.

Merkantzien zamalanak egiteko gordetako gune seinaleztatuetan, gordeketa indarrean sartzen den egun eta orduetan; mugikortasun urria duten pertsonen ibilgailuak direnean izan ezik eta behar bezala identifikaturik daudenean eta 20 minutuz gehienez, betiere.

Zerbitzu publikoko, erakunde ofizial, ordezkartza diplomatiko eta larrialdiko edo poliziaren ibilgailuen aparkaldira gordetako guneetan.

Ikuskizun edo ekitaldi publikoetara xedaturiko erakinen sarrera-irteera aurrean, aipatu ikuskizun edo ekitaldien orduetan, horrekin larrialdi kasuan jendetzaren irteera erraztasunez egitea oztopatzen delako.

Aparkaturiko ibilgailuak beste ibilgailuen zirkulaziorako 3 metro baino gutxiagoko zabalerako errete librea uzten duenean.

Bi noranzko zirkulazioa duten kaleetan, galtzadaren zabalerak bi ibilgailu-zutaberen

pasadizorako aukera bakarrik ematen duenean.
Ibilgailuek edo pertonek eraikinetarako pasabidea normaltasunez egitea oztopatzen denean.
Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat jandako pasabideak normaltasunez erabiltzea oztopatzen denean.
Arauz aparkaturiko beste ibilgailuen irteera eragozten duten eran.
Ibietan, erabat edo hein batean.
Kategoria jakineko ibilgailuen zirkulaziorako gordetako erreietan.
Kategoria jakineko ibilgailuen geldialdirako soilik gordetako lekuetan.
Obra, ekitaldi publiko edo kirol jarduerengatik aldi baterako seinaleztaturiko lekuetan.
Udal Aginpideak denbora mugatuko aparkaleku gisa egokituriko lekuetan, berau arautzeko ezarritako baldintzak bete gabe.
Zabor-bilketa eta gaikako hondakin-bilketa zerbitzuko edukiontzientzat gordetako lekuen aurrean.
Espaloi, pasealeku eta oinezkoen pasabidera xedaturiko gainerako guneeetan.
Mugikortasun urria duten pertsonen erabilerarako soilik seinaleztaturiko guneeetan.
Bide publikoetan, motordun ibilgailutik banandutako atoiak direnean.
Espaloirik gabeko kale hiritartuetan.
Baimendutako aparkalekuetan marrazturiko perimetroaren mugetatik kanpo.
Galtzadan, 23. artikuluan zehazturiko ez bezalako eran.

BIGARREN TITULUA

BIDE PUBLIKOETAKO JARDUERAK

ZAMALANAK

1. Atala: Arau orokorrak

30. art. Merkantzien zamalanak lokal komertzial eta industrialen barruan egin beharko dira, baldintza egokiak ematen direnean, betiere.

31. art. Kargatu edo deskargatu behar diren merkantziak eta gainerako materialak ez dira galtzadan edo espaloian utziko, aitzitik, eraikinetik ibilgailura edo alderantziz eramango dira zuzenean.

32. art. Merkantziak espaloitik hurbilen dagoen ibilgailuaren aldetik egingo dira, eragiketa ahalik eta arinen egiteko bitartekoak erabiliz, eta oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzeko ahaleginak eginez.

33. art. Hiribarruko zamalanak ez dira hasiko goizeko 8ak (8,00) baino lehen, ezta iluntzeko 8ak (20,00) baino beranduago jarraitu ere, 35. artikuluan xedaturikoaren kalterik gabe, eta neurri guztiak hartuta egingo da zaratak ekiditeko, eta erabilitako gunea garbi uzteko obligazioarekin.

Halako inguruabar bereziren batengatik, ezarritako ordutegitik kanpo zamalanak nahitaez egin beharra izanez gero, Udaltzaingoaren baimena beharko da.

2. atala. Zamalanetarako gordetako gunek

34. art. Lokal komertzial eta industrialen baldintzek zamalanak bere barruan egiteko aukera ematen ez dutenean, eragiketa hauek horretarako gordetako guneeetan egingo dira.

35. art. Udalak araturiko zamalanetarako gunek seinaleztatuko ditu, ordutegi mugatuarekin. Guneen banaketa hau inguruabar komertzialak, kokapena, erabileraren maiztasuna eta bideetako trafikoari eta gainerako erabiltzaileei eragiten zaien ondorioen arabera zertuko da.

36. art. Ezingo dute aparkatuta iraun zamalanetarako atondutako guneeetan aipaturiko jarduera burutzen ari ez diren ibilgailuak.

3. Atala. Zamalanak gordetako guneeetatik kanpo egitea

37. art. Zamilanak horretarako gordetako guneetatik kanpo egitea baimenduko da aipaturiko gunerik ez dagoenean edota biltegirako distantzia neketsua edo arriskutsua egiten denean.

38. art. Aipaturiko lanak Ordenantza hauetan ezarritako aparkaldi arauak betez egingo dira beti, eta ez dute bide publikoko gainerako erabiltzaileentzat inolako arriskurik edo kalterik eragingo.

39. art. Edozein inguruabarrengatik bide publikoko gainerako erabiltzaileei erasan diezaieketen zamilanak egin behar izanez gero, beharrezkoa izango da Udaltzaingoaren baimena. Lan hauek egiten diren bitartean oinezkoentzat edo ibilgailuentzat nolabaiteko arriskua egonez gero, behar bezala seinaleztatu beharko da.

HIRUGARREN TITULUA

IBILGAILUEN SARTU-IRTEERAKO BAIMENAK (IBIAK)

40. art. Udal Baimena behar da eraikinen barrura ibilgailuak sartu-irteerakoan hauek espaloiak edo jabari eta erabilera publikoko ondasunak gurutzatzea, edo erabilera pribatua edo hiritarrei ondasun guztiekiko dagokien erabileraren murrizketa berezia suposatzen duenean, edo sartu-irteera egiten den aurrealdean beste ibilgailuak aparkatzea edo gelditzea eragozten duenean.

41. art. Bide publiko lokaletara sartu-irteera egiteko baimena nahi dutenek, Udaletxean eta arauzko eran, ibilgailuen pasabiderako dagokien lizentzia eskatu beharko dute. Lizentzia honek sor ditzakeen gastu guztiak interesa duen eskatzaileen kontura izango dira.

42. art. Interesaturiko eskatzaileek euren kontura lortu beharko dituzte aparkatzea debekatzen duten eta euren lokalen muga adierazten duten plakak, udal zerbitzuek ematen dizkieten jarraibideen arabera, hauek adieraziko dietelarik aldi berean, kasu bakoitzean sartu-irteerarako egin beharreko lan materialak.

Ibiaren titularrak edo ibia dagokion jabeen elkarteak, betebeharrak hauek izango ditu:

1. Ibilgailuen sartu-irteeraren ondorioz eraikineko sarreretan egon daitezkeen koipe, olio edo bestelako gauzen garbitasuna.

2. Ibi iraunkorreko seinalea eraikineko sarrera edo irteerako atearen leku ikusterrazean ipini, eskuineko aldean ahal bada, edota horrelakorik ezean, atearen fatxadaren goiko erdialdean. Sartu-irteera luzeak dituzten eraikinetan, eta salbuespen gisa, zutoin bertikalean ipintzea onartuko da.

43. art. Udalak gurdi eta ibilgailuen pasabiderako baimenak eman ahal izango ditu, baita aparkatzeko debekuak ere ondoko ustezkoetan:

a) Estatuko, Eusko Jurlaritzako, Probintziako, Udalerriko edo Erakunde nahiz Institutuzioetako Zentro Ofizialak eta Bulegoak izanik, kasu bakoitzean eman daitezkeen interes orokor eta publikoko arrazoiengatik, eta betiere Ordenantza honetan aurreikusten diren baldintzak betez, aipaturiko Erakunde horien aurretiazko eskakizunarekin.

b) Garaje publiko, biltegi, garraio, ibilgailu konponketa, zerbitzugune eta antzeko beste jardueretara xedaturiko lokalei, berauen funtzionamendua eta jarduera Udalak behar bezala baimenduta daudenean.

c) Zerbitzu publikoko Garraio Konpainia ustiatzaileei.

d) Behar bezala baimendutako Klinika, Erietxe edo Laguntza Etxeei, anbulantzien sartu-irteerarako.

44. art. Ibia baimendu ahal izango da ere udal teknikarien iritziz espaloien, loretokien, aparkaleku publiko etab.en erabilera publiko normala eragozten ez dutenean.

45. art. Ibi baimenak eman ahal izango dira lokal partikularren sarrera-irteerarako eraikin isolatu familiabakarrekoak izanik, partzelaren barruan garajera xedaturiko gunea dutenean, eta hala eskatzen dutenean.

46. art. Ibiak baimendu ahal izango dira industrigunetan, pabilioi sarreretan eta zamalan guneetan.
47. art. Aurreko 41. artikuluan adierazten den bezala, erabiltzailearen kontura izango dira, beharrezko obra baimenarekin, burutzen diren lanak, hau da: espaloi ertza jatea eta berau zuri-gorritz sarreraren luzeran pintatzea, galtzadan dagokion seinaleztapen horizontala pintatzea, eta Udalak emango dion udal plaka ipintzea.
48. art. Merkatal edo industri jarduera bati lotuta dagoen ibi eskaera egiterakoan, behar diren udal baimenak aurkeztu beharko ditu.
49. art. Bide partikular edo kolektiboetatik garajeetara sartu ahal izateko baimenak edo lizentziak, kasu bakoitzean bat-bana egindako azterketaren eta erabakiaren ondorio izango dira, eta denboran edo garaian mugatu ahal izango dira, interes orokorreko irizpideen arabera.
50. art. Emandako ibiaren ondorioz ibilgailuen sarrera-irteeren erabilera berezia dela-eta, espaloietan eragindako kalteak titularren erantzukizuna izango dira, eta konpontzera behartuak egongo dira agintari eskudunen eskariz eta ematen zaien epearen barruan, eta agindua ez betetzeak nahitaezko betearazpena eragingo du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean araututako terminoetan.
51. art. Eskaria aurkezten denetik berariazko erabakirik hartu gabe bi hilabete igarotakoan, isiltasun ezkorrengatik baimena ukatua izan dela ulertuko da.
- Urtebetekoa izango da ibi lizentziaren indarraldia, eta automatikoki luzatuko da, Udalaren aldetik aurka egindako oharrak direnean izan ezik.
52. art. Ibiak baimentzeagatik ordaindu beharreko tasak, eraikin partikularretan ibilgailuen sartu-irteera arautzen duen Ordenantza Fiskalean ezarritakoak izango dira.
53. art. Debekaturik dago ibi gunearen aurrean aparkatzea, edozein ibilgailu delarik ere, ibiaren titularrarena barne, esleituriko ibiko ordutegiaren barruan.
54. art. Merkatal edo industri jarduetark dituzten lokaletan, eskatzaileek egiazatatu beharko dute jarduerak beharrezkoa duela ibilgailuen sarrera eta irteera edo jarduerari loturiko biltegiak zamalanetarako ibia behar duela.
- Mota hauetako lokaletan, erabilerako ordutegi eta egunen mugarekin emango da ibi baimena, eskaria egiterakoan ordutegia adierazi beharko duelarik. Baimendu ahal izango da goizeko zazpietatik (7:00) arratsaldeko zortziak (20:00) arteko ordutegian, kasu bakoitzean adierazten diren beharren arabera, berariaz aztertu beharreko egoera bereziak, edo industriguneak direnean izan ezik.
55. art. Ibi baimena ematen deneko epea amaitutakoan, eta, edozein arrazoi delarik ere, honen jarraipenik ez baldin badago, interesatuak, ibiak hartutako lekua baldintza ezin hobean utzi beharko du.
56. art. Landagunea denean, aurrez eskaria egin denean eta Udalaren arabera baimenduko da ibia.
57. art. Ez da ibi iraunkorreko ezein baimenik emango ibilgailuek bide publikora iristeko 5 metro baino gehiagoko espaloia, edo lorategi publikoa zeharkatu behar duten lokaletan.
58. art. Jadanik baimendutako ibietan luzapenak eman ahal izango dira, betiere hauek aparkaleku publiko, txorko, etab.en gunea eragozten ez dutenean, eta bide publikoko erabiltzaileari horrek ez diola kalte nabarmenik egiten Udalak irizten duen bitartean. Hala ere Ordenantza honetan araututako ordutegira egokitu beharko dira.

59. art. Debekatua egongo da ibiaren baimenik ez duten lokal partikularretan aparkatzea debekatua dagoela adierazten duen seinalea ipintzea.

60. art. Eskuarteko Ordenantza honek arauturiko baimenak iraungi egingo dira jardueraz aldatutakoan edo ibia duen lokalaren xedea aldatutakoan edota hauen titularra aldatutakoan. Berebat, baimena iraungitzat joko da eraikina eraisten baldin bada, hau berriro eraikia izaten bada ere.

61. art. Oiartzungo Udalak beretzat gordetzen du Ordenantza honetan aipatzen diren baimenak edozein unetan eraginik gabe uzteko eskubidea, gozatu dutenen aldetik inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe, eta betiere interes orokorreko irizpide edo inguruabarrak kontuan hartuta.

Baimena iraungitakoan titularrak sarrera-irteera adierazten duen seinaleztapen oro kendu egin beharko du, espaloia ertza hasieran zegoen eran konpondu, eta plaka dagokion Udal Zerbitzuetan entregatu.

62. art. Titulu honetan arautzen diren baimenei dagozkien tasak ez ordaintzeak, edo urtebeteko epean ibi lizentziatik ondorioztatzen diren eskubideenak ez erabiltzeak, besterik gabe, dagokion baimena iraungitzat jotzeko eta plakak edo pasabideen gordetze seinaleak erretiratzeko ahalmena ematen dio Udalari.

63. art. Eskuarteko Ordenantza honek aipatzen duen lizentzi ematea, edozein kasutan ere, Alkatetzaren hiriguneko zirkulazioari buruzko arau eta bandoen menpean eta baldintzapean dagoela ulertuko da.

64. art. Debekatua geratzen da ibia baimendua ez duten lokalen aurrean aparkatzea debekatzen edo ez aparkatzea erregutzen duten plaka edo adierazpenik ipintzea.

LAUGARREN TITULUA KAUTELAZKO NEURRIAK

I. ATALBURUA: IBILGAILUAREN IBILGETZEA

65. art. 1.- Tokiko poliziak ibilgetu ahal izango ditu honako ustezkoetan aurkitzen diren ibilgailuak:

- a) Gidaria alkoholemia, psicotropiko, estupefaziente, estimulante edo antzeko substantzien kontsumoa jakiteko frogetara makurtzen ez denean, edota frogen emaitza positiboa izan denean.
- b) Ibilgailuak arauz baimendutako zarata, gas eta ke mailak gainditzen dituenean.
- c) Ibilgailua uhalik gabe eta beste leku segurtasun-elementurik gabe dagoenean.
- d) Motor-bizikleta edo bizikleta-motordunen gidariek derrigorrezko kasko homologaturik gabe zirkulatzen dutenean.
- e) Ibilgailuari baimendu gabeko aldaketa garrantzitsua egin zaionean.
- f) Ibilgailuak zirkulatzeko baimenik ez duenean.
- g) Ibilgailuaren zirkulazioa dagokion derrigorrezko aseguruaz babestua ez dagoenean.
- h) Udal Aginpideak ordu mugatuko aparkaleku gisa atondutako lekuetan aparkatuta egonik, aparkalekua arautzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituenean.
- i) Eta legez ezartzen den beste edozein inguruabarretan.

2.- Ibilgailua ibilgetzearen ondorioz sortutako gastuak titularraren kontura izango dira, zeinak ordaindu edo bere ordainketa bermatu beharko duen aipaturiko neurria kentzeko aurre baldintza bezala, duen defentsa eskubidearen kalterik gabe eta administrazioak neurri hori hartzera eragin duen pertsona arduradunaren gain ondorioztatzeko aukera galdu gabe.

3.- Arau-hauste batengatik, arau-hausleak bere ohiko bizitokia lurralde espainiarrean duela frogatzen ez duenean, agente salaketa-egileak behin-behinekoz finkatuko du isunaren zenbatekoa, eta ibilgailua ibilgetuko du kopurua ordaindu ezean edo bere ordainketa eskubidean onaturiko edozein bitarteko bidez bermatu ezean.

II. ATALBURUA: IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA

66. art. Udaltzaingoak ibilgailu bat bide publikotik kentzeko eta ibilgailuen udal gordailura eramateko agindua eman lezake, ondoko inguruabarren batean aparkatuta aurkitzen denean:

1. Arriskua sortzen duen lekutan.
 2. Oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa larri nahasten baldin badu.
 3. Zerbitzu publikoren baten funtzionamendua eragozten edo oztopatzen badu.
 4. Ondare publikoan galerak edo kalteak eragiten baditu.
 5. Abandonu egoeran aurkitzen baldin bada.
 6. Zirkulaziorako soilik edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako soilik gordetako erreietan edo hauen zati batean daudenean (bus-errei, taxi-errei, geltoki, ezindu fisiko, etab.)
 7. Martxa jarraitzea oztopatzen duten istripuen kasuan.
 8. Halako hondamendi egoeran egonik, ibilgetzera behartutako kasuan.
 9. Ibilgetzera legez jo ondoren, ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe ibilgetzea burutzeko leku egokirik ez dagoenean.
 10. Segurtasun eta larrialdi zerbitzuetarako gordetako eremuetan.
 11. Legean edota Ordenantza honetan aurreikusitako beste edozein ustezkoetan.
67. art. Ibilgailu bat gainerako oinezko eta ibilgailuentzat arrisku egoera bat sortaraziz aparkatuta dagoela ulertuko da honelako tokitan egiten denean:

Bihurgunetan edo aldaparen gainaldetan.

Kaleen bidegurutzetan eta hauen inguruetan ikusmena murriztuz.

Zirkulazio seinaleak ikustea eragozten duten lekuetan.

Espaloi erpinetik ateratzen den kasuan, gainerako ibilgailuetako gidariei euren bidea aldaraziz, edo ibilgailuen bira oztopatuz.

Ikuskizun publiko eta denbora-pasakoetara xedaturiko lokalak irekita dauden orduetan hauen larrialdiko irteerak oztopatzen direnean.

Galtzadan, baimendutako lekuetatik kanpo egiten denean.

Bide erdibitzaile, banatzaile, irilatxo edo trafikoa bideratzeko beste bitartekoetan.

Zoladura marra zuriz seinaleztaturik dagoen guneeetan.

68. art. Ibilgailua oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa nahasiz aparkatuta dagoela ulertuko da ondoko kasuetan:

1. Gelditzea debekatua dagoenean.
 2. Beste ibilgailuei pasabiderik uzten ez dienean.
 3. Ibiaren bitartez eraikin baterako sartu-irteera oztopatzen duenean.
 4. Behar bezala aparkatutako beste ibilgailu bat zirkulazioan sartzea oztopatzen duenean.
 5. Bigarren ilaran gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.
 6. Zirkulazioarentzako edota gainerako erabiltzaileen zerbitzurako soilik gordetako errei edo bideak hartzen dituztenean.
 7. Oinezkoen eta ezindu fisikoen pasabideetan eta txirrindularien pasabideetan edo inguruetan aparkatuta daudenean.
 8. Espaloian, oinezkoentzako irletan eta gainerako oinezkoei gordetako gunetan aparkatuta aurkitzen denean.
 9. Lehentasunezko ardura bideetan daudenean.
 10. Ezindu fisikoei gordetako guneeetan daudenean.
69. art. Aparkaldiak zerbitzu publiko baten funtzionamendua oztopatuko du honakoetan egiten denean:

1. Garraio publikoko ibilgailuentzat gordetako geralekuetan.
 2. Garraio publikoko ibilgailuen zirkulaziorako gordetako erreietan.
 3. Hiri hondakin solidoen edukiontzia edo beste edozein hiri-altzari mota ipintzeko gordetako guneeetan.
 4. Larrialdi eta segurtasun zerbitzuentzat gordetako irteeretan.
 5. Zamalanan guneeetan, baimenarik gabe.
 6. Tokiko Udaltzainen aginduz bide publikoan ibilgailua ibilgetu, eta, gidariak edo jabeak, neurri hori hartzea eragin zuen huts egitea zuzendu gabe berrogeita zortzi ordu igaro direnean.
70. art. Aparkaldiak ondasun publikoaren galera edo hondamendia eragiten duela ulertuko da lorategi, heskai, zuhaizti, iturri edo hiriaren apaindura eta dekoraziora xedaturiko bidearen beste tokietan egiten denean.

71. art. Udal Aginpideak arrazoiz iritzi dezake ibilgailu bat abandonu egoeran aurkitzen dela honako kasuetan:

1.- Agintari eskudunek ibilgailua bide publikotik kendu eta gordailatu zenetik bi hilabete baino gehiago igaro direnean.

2.- Leku berean hilabete bat baino gehiago aparkatuta daramatzanean eta bere bitartekoz alde batetik bestera eramatea eragozten duten kalteak dauzkanean edo matrikularen plakak falta zaizkionean. Kasu honetan, hiri hondakin solidoaren tratamendua izango du, dagokion ingurumen araudiaren arabera.

1) atalean jasotako ustezkoan eta, abandonu zeinuak edukiz ere, matrikulazio plaka mantentzen edo titularra identifikatzeko aukera ematen duten moduko markarik izanez gero, honi errekerituko zaio, ibilgailua hamabost egunen barruan gordailutik erretiratzeko dagokion epea igarotakoan, jakinaraziz bestelakoan hiri hondakin solido gisa tratatuko dela.

72. art. Behar bezala aparkatuta egonik ere, Udal Aginpideak bide publikotik ibilgailuak erretiratu ahal izango ditu honako egoeretan:

1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publikoren bat izatea aurreikusitako lekuetan aparkatuta daudenean.

2. Bide publikoetan eta inguruetan obrak eta garbitasun lanak, konponketa edo seinaleztapena egitea aurreikusita dagoen gunetan aparkatuta daudenean.

3. Larrialdi kasuetan.

Udalak nahikoa aurrerapenarekin ohartarazi beharko ditu aipaturiko inguruabarrak, behar diren oharrak garaiz ipiniz.

Ibilgailuak kendutakoan, hurbileneko ibilgailu-gordailura eramango dira, eta titularrei horren berri emango zaie.

73. art. Legez aurreikusitako salbuespenak salbu, ibilgailua kentzeagatik eta Udal Gordailuan egoteagatik sortutako gastuak titularraren kontura izango dira, eta honek ibilgailua itzultzeko aurre baldintza gisa ordaindu edo ordainketa bermatu beharko du, errekurtsua jartzeko duen eskubidearen kalterik gabe. Bestalde, ibilgailua titularrak edo baimendutako pertsonak bakarrik jaso ahal izango du.

Ordaintzeko betebeharra bide publikotik ibilgailua kentzeko edo ibilgetzeko eragiketak hasten diren unetik sortzen da, eta horretarako nahikoa da izango da garabiaren presentzia edo horretarako xedaturiko ibilgailua kendu edo ibilgetu beharreko ibilgailuaren aldamenean egotea, bere egitekoa gauzatzen hasi ez bada ere.

74. art. Berehala utziko zaio ibilgailua kentzeari, baldin eta ibilgailuaren gidaria garabia – ibilgailua lotuta duela– abiatu baino lehen azaltzen bada, ordaintzen badu edo sortutako gastuen ordainketa bermatzen badu eta aurkitzen zeneko egoera irregular horri amaiera emateko behar diren neurriak hartzen baditu.

75. art. Udal Aginpideak berehala kenduko ditu bide publikoetatik bertan aurkitzen diren gauzaki guztiak, horien erantzule egiten den inor ez dagoenean, gauzaki guztiak Udal Gordailura eramango direlarik.

Modu berean jardungo da gauzakiak oinezkoen edo ibilgailuen trafikoa oztopatzen duen kasuan, baita bere jabea berehala kentzera ukatzen denean ere.

BOSGARREN TITULUA
ARAU-HAUSTE, ISUN ETA ERANTZUKIZUNAK
I. ATALBURUA: ARAU-HAUSTEAK

76. art. 1.- Arau-hauste administratiboak izango dira Ordenantza honen aurkako ekintzak eta ez egiteak, eta Udalak indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik erabakitzen duen kasuetan, eran eta neurrian zigortuak izango dira lege penaletan tipifikaturiko delitu edo falta ez diren kasuetan, halakoetan Administrazioak aginte jurisdikzional eskudunari igorriko diolako hainbesteko errua, eta abstenitu egingo da jardunbide zigortzailea jarraitzeaz Aginte Judizialak sententzia irmoa ematen ez duen bitartean.

Era berean, zigortuak izango dira Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legean, Zirkulazio Arau Orokorrean eta indarrean dauden trafikoko beste arauetan ezarritakoari hiribideetan eginiko arau-haustek, legeak eskumen zigortzailea beste Administrazioen bati ematen dionean izan ezik, kasu horretan jarduerak igortzeari bide emango zaiolako.

2.- Aurreko zenbakiak aipatzen dituen arau-haustek arin, larri eta oso larrietan sailkatzen dira.

3.- Arau-hauste arin gisa hartuko dira Ordenantza honetan jasotako arauen eta gainerako trafiko arauen aurka egindakoak eta hurrengo zenbakietan larri edo oso larri bezala bereziki sailkatzen ez direnak.

4.- Arau-hauste larritzat hartzen dira honako jokabide hauei dagozkienak:

- a) Ardurarik gabe gidatzea.
- b) Bidera edo honen ingurura suteak edo zirkulazioko istripuak eragin ditzaketen gauzakiak jaurtitzea.
- c) Abiadura mugak.
- d) Lehentasunezko pasabide, aurreratze edo noranzko edo norabide aldaketak.
- e) Leku arriskutsuetan edo trafikoa oztopatzen duten lekuetan gelditzea eta aparkatzea.
- f) Ikuspenik gabeko edo gutxiko egoeratan argirik gabe zirkulatzea.
- g) Obren zertzea eta seinaleztapena bide publikoan.
- h) Gainerako trafiko arauetan larritzat hartzen direnak.

5.- Arau-hauste oso larritzat hartuko dira, delitu osagai ez direnean, honako jokabide hauek:

- a) Ordenantza honen helburu diren bideetan araubidez ezarritako tasen gaineratik edari alkoholikoak hartuta gidatzea, eta edozein kasutan ere, gai sorgogarri, psikotropiko eta antzeko ondorioak dituzten beste edozein substantziaren eraginpean gidatzea.
- b) Ibilgailuen gidari orok alkohol, gai sorgogarri, psikotropiko, estimulante eta antzeko ondorioak dituzten beste edozein substantziaren balizko intoxikazioa atzemateko ezartzen diren probetara makurtzeko obligazioa ez betetzea, eta, baita, bideko gainerako erabiltzaileek ere zirkulazio istripuren batean zerikusia izan dutenean.
- c) Gidaritza ausartegia.
- d) Ibilgailuaren gehiegizko okupazioa, horrek baimendutako plazen atala 100eko 50 areagotzea, gidaria kanpo, esan nahi duenean.
- e) Baimendutako gehieneko abiadura 100eko 50 baino gehiago gainditzea, horrek aipaturiko gehieneko muga orduko 30 kilometro gutxienez gainditzea esan nahi duenean.
- f) Ezarritako norabidearen aurka zirkulatzea.
- g) Ibilgailuen arteko baimendu gabeko lehiak eta karrerak.
- h) Lurreko garraioei dagokien legerian ezarritako gidatzeko denbora 100eko 50 baino gehiagoan gainditzea edo atsedean denbora 100eko 50 baino gehiagoan gutxiagotzea.

II. ATALBURUA: ISUNAK

77. art. 1.- Arau-hauste arinak 91 euro arteko isunekin zigortuak izango dira, larriak 92 eurotik 301 eurora bitarteko isunarekin eta oso larriak 302 eurotik 602 eurora bitarteko isunekin.

Arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan Udalak gidatzeko baimena edo lizentzia kentzeko isun proposamena aurkeztu ahal izango dio Administrazio eskudunari.

2.- Isunak egintzaren larritasun eta ondorioen arabera, arau-hauslearen aurrekariari eta sorturiko arrisku potentzialen arabera sailkatuko dira.

3.- Eskuarteko Ordenantzan aurreikusitako isunak trafiko gaietako hezkuntza eta birziklapen neurriengatik ordezkatuak izan daitezke, indarrean dagoen legeriak xedatzen duenarekin ados.

4.- Arau-hausleak lurralde espainiarrean bere ohiko bizilekua izatea frogatzen ez duenean, salaketa egiten duen Bidezainak finkatuko du behin-behineko isunaren zenbatekoa, eta aipatu kopurua ordaindu ezean edo bere ordainketa eskubidean onarturiko edozein bitarteko bidez bermatu ezean, ibilgailua ibilgetuko du. Edozein kasutan ere, 80. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuko da, hots, 100eko 30eko beherapenari dagokiona.

BOSGARREN TITULUA

ERANTZUKIZUNAK

78. art. 1.- Ordenantza honetan, Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legean eta indarrean dagoen gainerako legerian ezarritako isunen erantzukizuna, arau-haustea egin duen egintzagilearengan eroriko da zuzen-zuzenean.

Egintzen erantzukizuna 18 urtez behetiko batek buruturiko egintzengatik izan dela aldarrikatzen denean, honen guraso, tutore, harreragile eta legezko zaintzaileek, edo ordena honetan, erantzungo dute elkartasunez beregatik, beraiei ezarritako obligazioa ez betetzeagatik, hots, gatzetxoei inputatzen zaien arau-hauste administratiboa aurreikusi beharra.

Elkartasunezko erantzukizuna ezarritako diru isunari dagokio soil-soilik, zeina aginte isun jartzaileak leundua izan daitekeen. Arau-hauste arinak direnean, aurreko pasartean aipaturiko pertsonen onspena jaso ondoren, isunaren zigor ekonomikoa aginte zigortzaileak ezarritako bestelako neurri hezitzaileez ordezkatu ahal izango da.

2.- Edozein kasutan ere, Ibilgailuen Erregistroan azaltzen den titularrak izango da ibilgailuaren dokumentazioarengatik jar daitezkeen isunen erantzule, baita ibilgailuaren zainketa-egoerari buruzko isunena ere, izan ditzakeen akatsek segurtasun baldintzei eragiten diotenean, eta aldizkako ikuskaritzei dagozkien arauak ez betetzeagatik direnean.

3.- Horretarako behar bezala eskaturiko ibilgailuaren titularrak, isunaren gidari erantzulea identifikatzeko obligazioa dauka, eta arrazoi justifikaturik gabe jardunbidezko tramitean obligazio hori beteko ez balu, arau-hauste larregile gisa diruz zigortua izango da, ezarriko zaion isunaren zenbatekoa gehienekoa izango delarik.

Modu berean erantzungo du ibilgailuaren titularrak honek identifikaturiko gidariari salaketa jakinaraztea ezinezkoa denenean, aipatu titularrari lepora dakioken arrazoiarengatik.

SEIGARREN TITULUA

ZIGOR PROZEDURAK

I. ATALBURUA: JARDUNBIDE ADMINISTRATIBOA

79. art. Indarrean dagoen legerian ezarritakoa izango da trafiko eta ibilgailuen zirkulazioari dagozkien isunak jartzeko jardunbide administratiboa. Alkateak, edo hala balegokio, honen ordezkari duen organo deskontzentratuak, egoki deritzon jardunbidezko eskuliburu bat eta osagarritzeko agiri normalizatuak onartu, aldatu edo indargabetu ahal izango ditu, era horretan trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko espediente zigortzaileen tramitazioa aipaturiko eskuliburuan ezarritakora egokitu beharko delarik.

80. art. 1.- Isun zigorrak, gidatzeko baimena edo lizentzia kentzea eragiten duen arau-haustea ez denean, 100eko 30eko beherapenarekin ordaindu ahal izango dira salaketa jakinarazten zaionetik hamar lanegunen barruan egiten bada. Aipaturiko beherapena 100eko 50 izango da

behin-behinekoz finkaturiko isunaren zenbatekoa arau-haustea egin zen egunetik kontatzen hasi eta hiru lanegunen barruan ordaintzen bada.

2.- Salaketaren jakinarazpena egin zaion hamaikagarren egunetik eta isunak tinkotasuna hartzen duenetik hamabost lanegun igaro arte, isuna bere zenbateko nominalan ordaindu ahal izango da.

3.- Aurreko atalean ezarritako diru-sarrera egiteko epea isuna ordaindu gabe iraungi ostean, premiazko jardunbidez burutuko da ordainarazpena, isunaren nominalaren gain %30eko errekargua likidatuz.

81. art. Trafikoaren inguruko arau-hausteengatik isunen zerga-bilketa premiatasun bidez egiten denean, zerga-bilketa betearazlearen inguruan indarrean dauden arauetan ezarritakora lotuko da.

82. art. 1.- Arau-hausteak zigortzeko ekintza hiru hilabeteko epen preskribatzen da, egintzak burutu ziren egunetik kontatzen hasita. Preskripzioa eten egiten da salatuak Administrazioaren aldetik horren berri izateko edo bere nortasuna jakiteko egindako edozein jarduerarengatik, edo indarrean dagoen legeriaren arabera egindako jakinarazpenarengatik.

2.- Isunak irmo bilakatzen direnean, urtebetera preskribatzen dira.

3.- Halarik ere, aurreko pasartean xedaturiko preskribapena eten egingo dute isunak egikaritzera bideraturiko eta derrigortuari jakinarazitako jarduera administratiboek.

II. ATALBURUA: ESKUMENAZ

83. art. Alkateari dagozkio Ordenantza honen helburu diren jardunbide zigortzaileak hasteko eta ebazteko eskumenak eta, hala balegokio, honek erabakitzen duen ordezkariak edo deskontzentrazio organoak egikaritu ahal izango ditu.

Tokiko Udaltzainaren Unitate Administrazioari dagokio instrukzioa.

84. art. Alkateak, edo hala balegokio, eskuordetze edo deskontzentrazioz jarduten duen organoak, trafikoaren inguruko arau-hauste arrunten taula bat onartu ahal izango du, baita aplikatu beharreko zigorrak ere, aldibereko inguruabarrak direla-eta, hauek makur daitezkeeneko modulazioaren kalterik gabe.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Gaur egun dauden ibien titularrek lizentziaren berritzea eskatu beharko dute Ordenantza hau indarrean sartzen denetik hiru hilabeteko epearen barruan, ibiaren eskakizuna Araudi honen arabera tramitatua izango delarik. Aipaturiko eskaria ez aurkezteak, lehen emandako ibiaren lizentzia automatikoki iraungitzea ekarriko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka jartzen diren garrantzi bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Eskuarteko Ordenantza hau, behin betiko onespena jaso eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den hurrengo egunetik sartuko da indarrean.